

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maite Gonzalez Esnal

*Donostia,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Ategorrietan jaioa, bertako eskola publikoan ikasi zuen. Ama Irungoa zuen, jostuna, eta aita donostiarra. Bi senidetan zaharrena da. 13 urterekin denda batean hasi zen lanean, eta akademia batean administrari-lanak ikasi ostean hainbat bulegotan jardun zuen. Ezkondu egin zen, eta senarraren lanarengatik Bartzelonara joan ziren bizitzera: Filosofia eta Letrak ikasi zituen han. Joan aurretik euskara ikasten hasi zen, eta bueltan jarraitu egin zuen: batez ere semearekin joan zen askatzen. Hainbat liburu idatzi ditu eta idazketa-tailerrak ematen ere aritu zen. Irakurle taldeak gidatzen ditu. Euskal idazleen Elkarteko idazkaria izan zen. San Telmo museoan egin genion elkarrizketa.

Zintak

DON-198

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-09
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Donostiarra baino, Ategorrietakoa

- **Erref:** DON-198/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Donostiarra dela baina ez peto-petoa, dio. Ategorrieta auzoan bertan egiten zuen bizimodua; eskola bertan zeukaten eta jolasera Uria mendira joaten ziren. Danborradarekin, esate baterako, ez du atxikimendu handirik sentitu.</p>

2. Eskolan, bereziki eskulanak

- **Erref:** DON-198/004
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ategorrietako eskola publikoan ibili zen. Frankismo garaia zenez, ideologia faxista oso sartua zegoen. Maistra batzuk zertxobait liberalagoak ziren. Eskulanak eta artelanak egiten zituzten. Hamahiru urterekin eskola utzi zuen eta lanean hasi zen.

3. Euskarazko hitzak entzutetik, euskara ikastera

- **Erref:** DON-198/005
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan frantsesa erakusten zieten eguerdian. Etxean gazteleraz egiten zuten, baina euskarazko hitz batzuk erabiltzen zituzten eta horrek zantzu emozional bat utzi zion. Ategorrietako ume batzuei amak euskaraz egiten ziela gogoan du. Bulkada emozional batek eraginda ikasi zuen euskara.

4. Lana egin ostean, lagunekin Donostiara

- **Erref:** DON-198/006
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Hamahiru urterekin garbiketa eta lurrin-denda batean hasi zen lanean, saltzaile. Lanetik irtendakoan, etxera joaten zen amari laguntzera. Asteburutan Donostiara joaten zen lagunekin; paseoan egitera, zinemara, dantzaldira... Mendira ere joaten ziren.

5. Bainuzalea

- **Erref:** DON-198/007

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Ahal zuen guztietan bainujantzia poltsan erabiltzen zuen eta uretara joaten zen. Igandetan Hondarribiko arroketara joaten ziren, Errotara. Donostiako hondartzan jende asko batzen zen igandetan eta ez zitzairen gustatzen.

6. Irakurtzea babesleku

- **Erref:** DON-198/008
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Gaztetxotatik izan du irakurzaletasuna; askatasuna ematen zion babesa zen irakurtzea. Liburu gutxi batzuk heltzen ziren etxera, aitzak ekarrita. Irakurtzea bere buruarekin egoteko modua zen.

7. Idazlan lehiaketan irabazle

- **Erref:** DON-198/009
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Eskolatik "La Voz de España" nola egiten zen ikustera joan ziren eta hari buruzko idazlan lehiaketa bat irabazi zuen. Bere gustuko gauzak egiteko astirik ez zeukan, lan egin beharra baitzeukan.

8. Mekanografia eta takigrafia ikasita, bulegoetan lanean

- **Erref:** DON-198/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:19:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Bere kasa ikasten jarraitu zuen. Iluntzetan mekanografia eta takigrafia ikasten zituen. Gero bulegoetan lan egiteko aukera izan zuen. Garrantzitsuena Iberduero izan zen.

9. Ikasteko gogoz, unibertsitatera

- **Erref:** DON-198/011
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:21:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ezkondu zenean, gizonaren lanbideagatik, Bartzelonara joan ziren bizitzera. Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko froga gainditu zuen eta hala hasi zen Filosofia eta Letrak ikasten.

10. Euskara ikasten Xabiartxo liburuarekin

- **Erref:** DON-198/012
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:21:27. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Euskara ikasten 1967 inguruan hasi zen, Xabiartxo liburua hartuta. Ez zegoen beste materialik. Alde Zaharrean bazegoen euskaltzale talde bat, euskara erakusten zuena. Irakasle Manoli Aleman izan zuen hasieran.

11. Euskara ikastea, jolasa

- **Erref:** DON-198/013
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:22:54. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskaraz ikasteko leku bila ibili zen. Ez dauka gogoan nola aurkitu zuen. Ama oso harrituta geratu zen. Aitaren euskara maila oso eskasa zen. Euskara ikastea izugarri gustatu zitzaion; jolas baten modukoa izan zen.

12. Euskarazko giroa non topatu zuen

- **Erref:** DON-198/014
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Loiola irratia entzuten zuen euskara praktikatzeko eta Azpeitiko lagunak egin zituenean, hantxe entzuten zuen euskaraz. Euskara ikasten hasi zela jakiten zutenean, euskaldunek euskaraz egin nahi izaten zioten. Semea izan zuenean hasi zen euskaraz egiten.

13. Donostian euskaraz ezin egin

- **Erref:** DON-198/015
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:28:08. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Donostian ez zeukan euskaraz norekin aritu. Batzuek aitona eta amonarekin euskaraz egiten zuten. Hizkuntza bat menperatzen ez denean, ez du norberak elkarriketa hizkuntza horretan hasten.

14. Bartzelonatik bueltan, euskara lantzen

- **Erref:** DON-198/018
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Bartzelonatik bueltan, euskara lantzen jarraitu zuen. Patxi Goenaga eta Jose Agustin Arrieta izan zituen irakasle. Bartzelonan Ez Dok Amairu ikusi zuen.

15. Euskaraz egitera ausartzea

- **Erref:** DON-198/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskaraz ikastea eta egitera ausartzea prozesua izaten da. Egin egunkarian lan egin zuen hilabete batzuetan eta inguru hartan pazientzia handiko euskaldun batzuk topatu zituen. Euskaldun batzuk zuzentzaileak ziren, osteraz.

16. Bertsoak ulertzearen poza

- **Erref:** DON-198/020
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:38:02. **Bukatu:** 00:40:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- 101L » Eleaniztasuna » Hizkuntza ikasketa

Laburpena:

Afalondo batean bertsoak ulertu zituenean, harrotasuna sentitu zuen, hizkuntzaren ezagutza ahalbidetzen zion tribukoa sentitu zelako. Ingelesarekin eta katalanarekin ere berdin gertatu zitzaion.

17. "Bertan ikusia" liburua

- **Erref:** DON-198/022
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bartzelonatik bueltan lagun batek aldizkari baterako inauteriei buruz idazteko eskatu zion. Lagun argazkilari batekin bertsolari txapelketaren jarraipena egin zuen eta liburua argitaratu zuten: "Bertan ikusia", 1984an.

18. Haurrentzako literatura eta kontakizun laburrak

- **Erref:** DON-198/023
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Haurrentzako literatura egiten hasi zen: "Mari Marieta", "Lapitz baten ibilerak", "Maidarren taupada bilduma"... Kontakizun laburrak ere idatzi zituen hainbat antologiatan.

19. Idazle europarrekin kongresua

- **Erref:** DON-198/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euskal Idazleen Elkarteak Galeusca antolatzen zuen. 1986an eremu urriko hizkuntzetako idazleen arteko kongresua antolatu zuten eta bera ibili zen antolakuntzan. Europa osoko idazleak gerturatu ziren. Beste herri batzuetan literatura sustatzeko nola moldatzen ziren ikasi ahal izan zuten. Bigarren edizioa ere egin zuten.

20. Itzuli zituen hainbat lan

- **Erref:** DON-198/026
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:50:13. **Bukatu:** 00:53:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Itzultzaile eskolan ere aritu zen. Itzulpenak egin zituen: Mercé Rodoredaren ipuin hautatuak eta "La Plaça del Diamant" nobela. Idazlearen estiloa ezagutzea beharrezkoa da itzulpena egiteko. Marguerite Yourcenar-en "Alexis" ere itzuli zuen, baita Eugenio de Andraderen "Uraren bezpera" ere.

21. Liburuei buruzko epaiak

- **Erref:** DON-198/027
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:53:16. **Bukatu:** 00:58:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euskal literaturako libururik onena zein izan den errazegi esaten dela uste du. Berak gustukoen zein izan duen esango luke. Arantxa Urretabizkaiaaren "Zergatik Panpox?" argitaratu zenean, berrikuntza izan zela azaltzen du. Gizartearen egoerak eta komunikabideen jokabideak eragin handia daukate liburuekiko harreran.

22. Idazlea emakumea dela, esan beharrik ez

- **Erref:** DON-198/029
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 01:00:02. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Idazle bati buruz emakumea dela esatea soberan dagoela uste du. Adjektiborik behar ez duena adjektibatzea iruditzen zaio. Generoa gehiegi markatzeak on egiten duen zalantza dauka.

23. Liburuan kontatutakoa, benetan gertatu ote?

- **Erref:** DON-198/030
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Liburuak kontatzen duena idazleari benetan gertatu zaion galdetzea irakurle taldeetan askotan irteten den gaia dela dio; bereziki idazle oso ezagunekin gertatzen dela dio.

24. Idazlearekiko jakin-mina

- **Erref:** DON-198/032
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:07:01. **Bukatu:** 01:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizartean apurtzailea izanez gero, jakin-mina sortzen du, hor kontatutakoa esperientziaz dioen ala ez jakin nahia. Emakumeek idatzitako liburuetan konfidentzia eta autofikzio gehiago dagoela dio. Gizarte txikia garenez, bertakoak izanda, idazlearen bizimoduak jakingura sortzen du. Pribatua politikoa dela borrokatu izan dutela dio.

25. Irakurketa taldeetan gidari

- **Erref:** DON-198/033
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:10:09. **Bukatu:** 01:13:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Irakurketa taldeak gidatzen ditu. Gai desberdinak lantzen dituzten liburuak aukeratzen ditu. Munduan gertatzen denaren berri izan nahi dute irakurleek. Liburuen estiloak aztertzen dituzte. Adibidea jartzen du.

26. Idazleen misoginia aztergai

- **Erref:** DON-198/034
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:13:31. **Bukatu:** 01:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Idazleen misoginia aztertzen dute irakurketa taldeetan. Batzuetan inplizituki eta beste batzuetan esplizituki ageri dela azaltzen du. Adibidea jartzen du.

27. Emakume nagusiak irakurketa taldeetan

- **Erref:** DON-198/035
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:17:04. **Bukatu:** 01:19:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Irakurketa taldeak gidatzen hamabost urte daramatza. Oso kontentu dago jendearen erantzunarekin. Emakume nagusi asko lehen egiteko astirik ez zeukatena egiten ari dira.

28. Liburuak irakurri eta eztabaidatu

- **Erref:** DON-198/036
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:19:01. **Bukatu:** 01:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Osasun arrazoiengatik, Idazleen Elkarteak utzi zuen. Ondoren, bere burua eskaini zuen liburutegi pare batean eta horrela joan ziren taldeak osatzen. Irakurketa taldeetan liburuak irakurri eta eztabaidatzea da helburua.

29. Idazketa tailerrak nolakoak diren

- **Erref:** DON-198/037
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:21:12. **Bukatu:** 01:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Idazketa tailerrak eman izan ditu. Gai bat pentsatuta joaten zen eta irudi edo objekturen bat eramaten zuen, gaia emateko. Hamar-hamabost lerro idazten zituen bakoitzak eta denen artean komentatzen zuten. Bi idazle atera ziren talde hartatik.

30. Herri Irratian lanean

- **Erref:** DON-198/040
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:26:01. **Bukatu:** 01:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irrati zalea da. Herri Irratian lan egin zuen. Uda batez festaz festa ibili zen herririk herri. Gero, irratian elkarriketak egin zituen.

31. Umetan euskal dantzak bai, baina euskal girorik ez

- **Erref:** DON-198/042

- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:27:59. **Bukatu:** 01:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ategorrietan dantza taldean aritzen zen mojekin, eta herriz herri ibiltzen ziren. Hori ez zen euskal giroa beretzat, ez baitzen euskaraz.

32. Irakurketa taldeetan, oraingo eta lehenagoko liburuak aztergai

- **Erref:** DON-198/045
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:34:23. **Bukatu:** 01:37:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Irakurle taldeetarako euskarazko eta gaztelerazko liburuak erabiltzen ditu. Euskarazkoen artean, bertakoak eta literatura unibertsalekoak irakurtzen dituzte. Liburuaren artean, gaurkoak eta zaharragoak irakurtzen dituzte. Adibideak ematen ditu.

33. "Viajes, frutas, barrios" liburuaz

- **Erref:** DON-198/047
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:38:34. **Bukatu:** 01:39:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Berak autoedizioan ateratako "Viajes, frutas, barrios" liburuan kontatzen duena. "Viajes" atalean Frisiara egindako bidaiak kontatzen ditu.

34. "Viajes, frutas, barrios" liburuaz II

- **Erref:** DON-198/049
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:40:10. **Bukatu:** 01:43:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Barrios" atalean, bere auzoko kontuak jasotzen ditu, ume eta gazte garaian bizi izandako kontuak, gai sozialei oso lotuak. Donostia osoko emakumeak joaten ziren Tabakalerara lanera. Emakume libreak zirela esaten zuten.

35. Zinemaldiko aldizkarian kazetari

- **Erref:** DON-198/050
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:43:26. **Bukatu:** 01:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Donostiako Zinema jaialdian ere parte hartu izan du, prentsan. Egunero aldizkaria ateratzen da. Bera lanean zebilela, maketak eskuz egiten zituzten; ez zegoen ordenagailurik.

36. Abortatzearren, Basaurin hiru emakume atxilotu eta ondorengo protestak

- **Erref:** DON-198/051
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 01:45:05. **Bukatu:** 01:49:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Basauriko epaiketa egin zenean, sinadura bilketa egin zen, "nik ere abortatu dut" sinatuta. Militantzia keinu bat zen. Hirurogeigarren hamarkadan izan zen. Basauriko hiru emakumek abortuak egiten zituen emakume batengana jo zuten; orduan, atxilotu egin zituzten abortatzeagatik. Militantzia politikoaren egun handia izan zen epaiketaren eguna; abokatuek ere ausart jokatu zutela kontatzen du. Manifestazio handia egin zuten. Beldurra dauka gogoan.

37. Abortatzearren, Beasainen emakume bat hil eta ondorengo protestak

- **Erref:** DON-198/052
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:49:16. **Bukatu:** 01:51:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

"Independenteak" izeneko talde feministako kide zen. Beasainen emakume bat hil zen, abortua eragiterakoan, eta manifestazio isila egin zuten. Harrezkero, Donostian biltzen hasi ziren, ezkutuan. Oraingo gai berdintsuak ziren: berdintasuna, oro har.

38. Donostiako talde feministak

- **Erref:** DON-198/054
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:52:18. **Bukatu:** 01:54:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Donostian talde feminista bat baino gehiago zegoen: "Autonomoak" izenekoa, ez zeudelako alderdi politikoetan; "Borroka" izenekoa... Emakume asko zeuden alderdi politikoetan. Asanblada osatu zuten guztien artean. Leioan jardunaldiak egin zituzten, Euskal Herri mailakoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com